



## 4. Elkarteak

Arestian esan bezala, gure enpresaren produktu garrantzitsuenak paper birziklatuz eginiko koadernoak, orriak eta karpetak dira. Horien ekoizpenerako **Smurfit Kappa** paper fabrikaren beharra ikusi dugu eta beraz haiekin egingo dugu funtsezko elkarre bat. Beraiekin harremanetan jarri eta bertan ekoiztuko dira gure paperezko 3 produktuak.



Hala ere, papergintzarekin lotutako beste hainbat produktu ere eskainiko ditugunez, esaterako estutxeak edo boligrafoak, plastikoa ekoizten duen enpresa batekin harremanetan jarri gara, **Ecoembes** alegia. Ecoembesek plastikozko botilaz egindako fibraz ekoiztutako estutxez eta birziklatutako plastiko gogorrez egindako boligrafoz hornituko gaitu.



Horrez gain, lehen esan dugun bezala gure helburu nagusia ikasleen artean kontzientzia piztea da eta beraz gure enpresaren printzipioekin bat datozen **ikastetxeekin hitzarmenak** egitea nahitaezkoa da.

